



## **Deskribapena**

Tirali taldea gara, 2. batxilergoko Talaia BHI ikastetxeko ikasleak. Taldea 4 pertsonak osatzen dugu. Ainhitze Zabala, Iker Ibañez de Gauna, Inazio Echeveste eta Lander Colas gara.

Gure taldeak webgune bat sortzea erabaki du, aplikazio izan daitekena ere. Webgune honek ibilgailu elektrikoak (patinete elektrikoak, onewheel-a, bizikleta elektrikoak, monoziklo elektrikoak, etab.) alokatuko ditu. Berezitasuna produktu horiek enpresarenak izango ez direla izango da, produktu horiek mundu guztian zeharreko pertsonak ipiniko dituzte alokairuan. Webgunea alokatzailearen eta bezeroaren arteko harreman bitartekari gisa izango da.

Gure bezero segmentuak hainbat ezaugarri izango ditu kontuan. Alde batetik, erdi-mailako familientzat egongo da gure webgunea zuzenduta, produktu horiek alokatzea ez delako merkea izango eta maila altuko jendeak zuzenean erosi egingo dutelako behar izanez gero. Bestalde, adina ere kontuan izango dugu. 25 eta 60 urte arteko pertsonak zuzenduta egongo da. Izan ere, 25 urtetik beherakoek ez dute, orokorrean, produktu hauek erosteko adina diru. Gainera, 60 urtetik gorakoek ez dute internetan produktuak alokatzeko edo erosteko erabiltzeko ohiturarik.

Gure enpresarentzat aliantzak funtsezkoak izango dira. SEUR enpresa azpikontratatu dugu produktuen banaketa egiteko eta Mapfre enpresa azpikontratatu dugu produktuei seguru bat jartzeko (alokatzaila babestua egon dadin).

Enpresak bi modutan jasoko ditu diru-sarrerak. Alde batetik, publizitateak garrantzi handia izango du gure webgunean eta iragarkiak egongo dira diru-sarrera handi gisa. Gainera, alokatzaileari zerga bat kobratuko diogu produktuaren alokairuari ehuneko bat kenduz. Horren truke alokatzailearen produktuak seguru bat izango du, eta gainera ez dio produktu hori bezeroari zuzenean entregatuko, banaketa SEUR enpresak egingo du, aipatu bezala.

Bezeroei deskontuak egingo dizkiegu fidelizatu daitezten. Gainera, influencerrak ordainduko ditugu sare sozialetan gure produktua promozionatu dezaten, eta horrek bezeroak erakarriko ditu.

Azkenik kostuen aldetik, minimoak izaten saiatuko gara. Soldatetan, iragarkietan, alokairuan eta azpikontratatuako enpresetara joango da gure aurrekontuaren gehiengoa.